

BESTELAKO XEDAPENAK

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA

5795

AGINDUA, 2024ko abenduaren 3koa, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuarena, Oinarrizko Ikerketako edo-eta Ikerketa Aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak emateko deia egiten duena (2025-2027).

Euskal Autonomia Erkidegoko zientzia- eta teknologia-ahalbideak areagotu beharra dago, eta ikerketa-taldeen kalitatezko ikerketa egitea bermatu eta sustatu nahi da; hots, dela beren jarduerak nazioartekotzea eta beren emaitzak garrantzi zientifiko eta teknologiko handiko foroetan argitaratzea, dela euskal gizartearen gizarte-, teknologia- eta ekonomia-arazoak konpontzen laguntzea. Horregatik guztiagatik, sail honek sustatzen dituen proiektuak –oinarrizko ikerketakoak eta ikerketa aplikatukoak– egiteko programarekin aurrera jarraitu behar da.

Deialdi honek Euskal Autonomia Erkidegoko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Sistema sendotzen du, ezagutzaren garapena eta entitate ezberdinetako taldeen arteko koordinazioa bultzatzen baititu, baliabide materialak eta giza baliabideak bultzatzen, eta bikaintasuneko ikerkuntza-taldeak eta unitateak antolatu eta abian jartzen.

Agindu honen bitartez, sailak lankidetzan sustatu nahi du unibertsitateko teknologia-taldeen eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen artean. (Azken horiei, deialdiaren ondorioetarako, lankidetzan diharduten entitate parte-hartzaile esango diegu).

Deialdiaren xedea da, ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Sistema sendotzea eta sailak kudeatutako oinarrizko ikerketako nahiz ikerketa aplikatuko proiektu zehatzak garatzea, kalitatezko eta interes zientifiko nahiz teknologikoko ikerketa aplikatuko edo teknologikoko proiektuen bitartez.

Era berean, agindu honek aintzat hartzen ditu Eusko Jaurlaritzaren «Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2030 Planean» (ZTBP Euskadi 2030) jasotako estrategiak –plan horrek koherente izan nahi du Europa mailan ezarritako helburu estrategikoekin; alegia, Europa 2020 Estrategiarekin–; hartara, ezagutzan oinarrituta dauden eta modu jasangarrian hazteko gai diren eta enplegua ikuspegi kuantitatibotik nahiz kualitatibotik hobetzeko gai diren ekonomia lehiakorak eta dinamikoak garatuko dira.

Sailaren 2025erako dirulaguntzen plan estrategikoa onartzen duen Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren aginduan sartzen dira agindu honetan araututako dirulaguntzak.

Administrazio publikoen dirulaguntzak emateko jarduera arautzen duten printzipioen arabera ebatziko da deialdi hau, xedapen hauetan ezarritako eran: Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzearen abenduaren 21eko 20/2023 Legea; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako oinarrizko araudia; 38/2003 Lege Orokorrearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta laguntzei eta dirulaguntzei aplikatzekoak zaizkien gainerako xedapenak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan ezartzen denaren babespean, deialdi hau elektronikoki izapidetuko da.

Kontuan hartu da lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena (2024ko ekainaren 24ko EHAA, 123. zk.).

Oinarri hartu da, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura egin beharreko gastu-espeditteen alde aurretiko izapidetzea arautzen dituen Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan ezarritakoa.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea 2025-2027 aldian oinarrizko ikerketako edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko.

2. artikulua.– Kreditu erabilgarria.

Agindu honen xede diren laguntzetarako 1.000.000 euro erabiliko dira, EAEko Aurrekontu Orokorretan horretarako xedatutako partidaren kargura. Diruz lagun daitekeen proiektu bakoitzari 80.000 euro emango zaizkio gehienez ere.

3. artikulua.– Entitate onuradunak.

1.– Entitate onuradunek akreditatuta egon behar dute Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen Erregistroan (aurrerantzean, ZTBES), zeina Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzko ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuaren 28. artikuluan jasota baitago. Hona erregistro horretako zer kategoriatan egon behar duten entitate eskatzaileek eskaera egiteko epea amaitu baino lehen eta laguntza egikaritzeko aldia amaitu arte:

a) Oinarrizko eta bikaintasuneko ikerketa-zentroak (BERC).

b) Unibertsitateetako ikerketa-egiturak, zeinek 6. artikuluaaren arabera eraturako ikertzaile-taldeak izan beharko baitituzte plantillan. Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten unibertsitateen kasuan, ikerketa-taldean ezin izango da egon 2022-2025 aldirako euskal unibertsitate-sistemako ikertzaile-taldean jarduerak babesteko laguntzen deialdian A edo B talde gisa akreditatutako ikerketa-talderen batekoa izan den inor, baldin eta deialdi horretan dirulaguntzaren bat lortu bazuen.

c) Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZ).

2.– Entitate eskatzaileek, laguntza jasotzen duten aldian, baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dien zigor-zehapenik edo administrazio-zehapenik duten entitateek eta horretarako gaitasunik gabe uzten dien legezko debekurik duten entitateek ezin izango dute dirulaguntza hau jaso, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tartean.

b) Ezingo zaie laguntzarik edo dirulaguntzarik eman sexuan oinarrituta diskriminatzen duten jarduerari, ezta sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoei eta juridikoei ere, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan.

c) Entitate onuradunek egunean izan beharko dituzte zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Gainera, entitate onuradunek, dirulaguntzak itzultzeko obligaziorik badute, ordainduta izan behar dute.

Baldintza hori bete beharko da bai onuradun izateko eta bai izaera horri eusteko dirulaguntza-aren likidazioa egin arte. Alde horretatik, egiaztapenak egingo dira bai dirulaguntza ematen denean eta bai ordainketak egiten direnean.

d) Ezin izango dira agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan artikulu honetan jasotako egoeraren batean dauden erakundeak: Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan.

e) Ezin izango dira laguntzen onuradun izan LGTBIfobia egiten, bultzatzen edo sustatzen duten erakundeak, konbertsio-terapiak sustatzea edo egitea barne.

4. artikulua.– Ikerketa-proiektuen betekizunak.

1.– Proiektuak 1 eta 3 urte osotan egiteko eskatu ahal izango dira, eta, azken urtearen ondoren, lau hilabeteko aldi gehigarria egongo da amaitzeko, eta horretarako, 16. artikuluan deskribatutako amaierako gastu-ziurtagiria eta amaierako txosten zientifikoa entregatu beharko dira.

2.– Deialdiaren ondorioetarako, 2025eko ekitaldian hasiko dira proiektuak egikaritzen, hots, 13.5 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, onuradunak emandako dirulaguntza onartzen duenean. Egikaritze-fasearen amaiera proiektuan aurreikusitako iraupenaren arabera izango da, baina administrazio-jarduketak 2028ko ekainaren 30a baino lehenago amaitu behar dira.

3.– Deialdira aurkezten diren ikerketa-proiektuek I. eranskinean aipatzen diren printzipio bioetikoak errespetatu beharko dituzte.

5. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak.

1.– Diruz lagundutako jardueraren izaerari inongo zalantzarik gabe erantzuten dioten kontzeptuak lagunduko dira diruz, baldin eta behar-beharrezkoak badira eta oinarri arautzaile hauetan zehaztutako epean egiten badira.

Diruz lagundu daitezkeen gastuetan, erosketa-kostua inoiz ez da izango merkatuko balioa baino handiagoa.

2.– Eskaerarekin batera joan behar duen proiektuaren aurrekontua epigrafeka eta urteka egituratu eta justifikatuko da, deialdi honen bidez lagundu daitezkeen kontzeptu hauen arabera:

a.1.– Doktore ez diren laguntzaileak.

Proiektuko eta urteko, laguntzaile bati ordaintzeko kopurua finantzatu ahal izango da, baldintza hauekin:

– Doktore ez den langile laguntzaile gisa, lanaldi oso baterako, 23.801 euroko dirulaguntza emango da (horietatik 18.635 euro izango dira nominaren zenbateko gordina, langile bakoitzak jasan behar dituen atxikipenak eta kotizazioak kendu aurretik) laguntzaile beraren lehenengo eta bigarren urterokoetan, eta 25.253 eurokoa (horietatik 19.967 euro izango dira nominaren zenbateko gordina, langile bakoitzak jasan behar dituen atxikipenak eta kotizazioak kendu aurretik) hirugarren urterokoan. Bigarren, edo, hala badagokio, hirugarren urterokoan, proiektuari eskainiko zaion dedikazioa urtebete baino laburragoa izanez gero, urteroko bakoitzeko dedikazio horren arabera kalkulatu da zenbatekoa, proportzioan.

Gehigarri bat ezartzen da jarduera uzteagatik kalte-ordaina estaltzeko, kontratua amaitzean aplikatu beharreko indarreko araudiaren arabera.

Gehigarri horrek lan egindako urte bakoitzeko hamabi eguni dagokien zenbatekoa estaliko du gehienez, proiektuan parte hartzeari uzten zaion arte. Kontratu bakoitzeko, gehienez ere, 1.969,35 euro ordainduko dira kalte-ordain gisa, kontratua amaitu eta hurrengo urterokoari dagokion ordainketan.

– Entitate eskatzailearekin izenpetutako kontratuak gutxienerako ordainsari gisa jasoko ditu diru-kopuru horiek, hargatik eragotzi gabe entitate kontratatzailearen kontura osatzeko aukera; hala bada, entitate kontratatzaileak ordaindu beharko du gehikuntza horri dagokion enpresa-kuotaren zati proportzionala.

– Laguntzaile horrek gradu, lizentzia, ingeniari-titulu edo arkitekturako titulua izan beharko du.

– Programa honen babesean kontzeptu horrengatik laguntza bat jasoz gero, oro har, ezingo da soldata-izaera duen beste zenbatekorik jaso.

– Gutxienez, urtebete eman beharko du proiektuan lanean.

a.2.– Doktore diren laguntzaileak.

Proiektuko eta urteko, laguntzaile bati ordaintzeko kopurua finantzatu ahal izango da, baldintza hauekin:

– Doktore diren laguntzaileen kasuan, lanaldi oso baterako, 43.324 euroko dirulaguntza emango da urteroko bakoitzeko (horietatik 32.672 euro izango dira nominaren zenbateko gordina, langile bakoitzak jasan behar dituen atxikipeak eta kotizazioak kendu aurretik). Proiektuari eskainiko zaion dedikazioa laburragoa izanez gero, urteroko bakoitzeko dedikazio horren arabera kalkulatu da zenbatekoa, proportziorik.

Gehigarri bat ezartzen da jarduera uzteagatik kalte-ordaina estaltzeko, kontratua amaitzean aplikatu beharreko indarreko araudiaren arabera.

Gehigarri horrek lan egindako urte bakoitzeko hamabi eguni dagokien zenbatekoa estaliko du gehienez, proiektuan parte hartzeari uzten zaion arte. Kontratu bakoitzeko, gehienez, 2.148,30 euro ordainduko dira kalte-ordain gisa. Ordainketa hori kontratua amaitu eta hurrengo urterokoari dagokion ordainketan egingo da.

– Entitate eskatzailearekin izenpetutako doktoratu ondoko kontratuak gutxienerako ordainsari gisa jasoko ditu diru-kopuru horiek, hargatik eragotzi gabe entitate kontratatzailearen kontura osatzeko aukera; hala bada, entitate kontratatzaileak ordaindu beharko du gehikuntza horri dagokion enpresa-kuotaren zati proportzionala.

– Laguntzaile horrek doktore-titulua izan beharko du, eta doktore-tesia 2024an lortua izan beharko du.

– Programa honen babesean kontzeptu horrengatik laguntza bat jasoz gero, oro har, ezingo da soldata-izaera duen beste zenbatekorik jaso.

– Gutxienez, sei hilabete eman beharko du proiektuan lanean.

b) Material inbentariagarria.

Proiektuaren kargura eskuratutako ekipamendu bakoitzak urteko 20.000 euro baino gutxiago balio beharko du, BEZik gabe, eta entitate onuradunaren inbentarioan jasota egongo da, harik eta

proiektua egikaritzen amaitu arte, 4. artikuluan deskribatu bezala, eta, nolahi ere, eskuratzen denetik gutxienez bi urtez. Deialdi honetatik kanpo daude esplizituki altzariak eta instalazioak, baita kudeaketarako ekipamendu informatikoa erostea ere.

c) Material suntsikorra.

Mugarik gabe ordainduko da, behar bezala justifikatuta badago eta proiektuaren jardueretan beharrezkoa bada. Ez da sartzen bulegoko material orokorraren finantzaketa.

d) Bidaiak.

Proiektuaren jarduerak burutu ahal izateko egiten diren bidaien ondoriozko gastuak onartuko dira. Halaber, proiektuan ateratako emaitzak ezagutzera emateko egiten diren bidaiak-gastuak ere onartuko dira, proiektua egikaritzeko azken urtean egindakoak. Azken kasu horretan, pertsona bakarrak eginiko gastuak bakarrik lagunduko dira diruz.

e) Bestelako gastuak.

Aurreko kontzeptuetan sartzen ez diren gastuak finantzatu ahalko dira, finantzatutako aurrekontuaren % 5 gehienez, baldin eta proiektuaren helburuak garatzeko beharrezko direla justifikatzen bada. Finantzatutako aurrekontuan ez da sartuko laguntzaileei jarduera uzteagatik ematen zaien kalte-ordain gehigarria.

3.– Ez dira inola ere aintzat hartuko ez deialdi honen eskaera aurkeztu aurretik egindako gastuak, ez 4. artikuluan adierazitako egikaritze-aldia amaitu ondoren egindakoak.

4.– Artikulu honetan diruz lagundu daitezkeen gastuei buruz arautu ez denerako, Dirulaguntzen Erregimena arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikuluan adierazitakoa beteko da.

6. artikulua.– Ikertzaileen betekizunak.

1.– Osaera.

1.1.– Ikertzaileen zerrenda bat jasoko da eskaeran; ikertzaileok, bada, laguntzaren xede den proiektuan lan egingo duen ikertzaile-taldea osatuko dute. Gutxienerako ikertzaile-taldea eratuko duten hiru pertsonak osatuko dute, gutxienez, taldea. Horien artean egongo da proiektua zuzenduko duen ikertzaile nagusia, zeinak estatutupeko edo lan-kontratuko lotura izan behar baitu entitate eskatzailearekin. Gutxienerako ikertzaile-taldea osatzen duten pertsonak proiektuan jarraitu beharko dute, gutxienez, proiektua egikaritzeko fase osoan; ikertzaile nagusiaren kasuan, gainera, 4.1 artikuluan aipatzen den lau hilabeteko aldi gehigarrian ere jarraitu beharko du. Horietako bik, gutxienez, doktore-titulua izan beharko dute, eta horien artean egongo da ikertzaile nagusia.

Ikertzaile-taldean parte hartzen duten gainerako ikertzaileek gradu-, lizentzia-, ingeniari- edo arkitektura-titulua izan beharko dute.

Urteko 1.400 ordukoa izango da ikertzaile-taldea osatzen duten ikertzaileek proiektuari eskainitako gutxienerako dedikazioa, eta talde bakoitzeko ikertzaile nagusiaren gutxienerako dedikazioa, berriz, urteko 420 ordukoa.

1.2.– Gutxienerako betekizun galdagarria izango da ikertzaile-taldearen osaera, eta hori ez betetzea (18.2 artikulua), nahiz eta gerora sortutako arrazoiengatik izan, dirulaguntza eskubidea galtzeko arrazoi izango da.

2.– Entitate bakoitzak nahi beste eskaera aurkeztu ahal izango ditu, ikertzaile nagusien bitartez, 3. artikuluan ezarritako eskakizunak betez gero, baina betiere honako muga hauekin:

– Ikertzaile nagusi bakoitzaren eskaera bat baino ez da onartuko. Eskaera bat baino gehiago aurkeztuz gero, zeinetan parte hartuko duen aukeratzeko eskatuko zaio, eta beste eskaera deialditik kanpo geratuko da.

– Era berean, ikertzaile bakoitzak eskaera batean baino ezingo du parte hartu. Eskaera batean baino gehiagotan aurkezten bada, zeinetan parte hartuko duen aukeratzeko eskatuko zaio, eta beste eskaera deialditik kanpo geratuko da.

– Ezingo dute deialdian parte hartu aurreko proiektuetan parte hartu duten eta eskaera aurkezten duten egunean, betebeharrak egiteke dituztelako, oraindik jarduketak amaitu ez dituzten ikertzaileek, alde batera utzita amaierako txosten zientifikoa eta egindako argitalpenak.

– Finantzatutako proiektu bat onartutako amaiera-data baino lehen bertan behera uzten bada, parte hartu duten ikertzaileek ezingo dute beste proiektu berri batean parte hartu, harik eta hasierako proiektu hori onartu zen unean aurreikusitako amaiera-data bete arte. Alderdi hori 18.2 artikuluan deskribatutako gutxieneko betekizun galdagarritzat hartu denez, inguruabar horietan gertatzen diren proiektu-eskaerak ukatu egingo dira, eta gerora gertatutako ez-betetzeak dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

3.– Erantzukizunpeko adierazpen sinatu baten bidez, parte hartzen duen ikertzaile bakoitzak adieraziko du zenbat ordu konprometitu dituen deialdi honetan eskatutako proiektua egingo den urteetarako emandako edo eskatutako beste proiektu batzuetan. Hori horrela, ordu-kopuru nahikoa eskaini beharko die proiektu honetan esleitu eta konprometitutako jardueri.

4.– Deialdiko eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen kontratatu beharko ditu entitate eskatzaileak ikerketa-taldeko kideak. Halaber, ikertzaile nagusiak kontratu bat izan beharko du entitate eskatzailearekin, proiektuaren iraupen osoa baino luzeagoa, eta hor sartuko dira egikaritze-fasea eta 4.1 artikuluan zehaztutako lau hileko aldi gehigarria. Artikulu honetako 1. apartatuan aipatzen den gutxieneko ikerketa-taldea osatzen duten beste bi ikertzaileek gutxienez proiektuaren iraupen berdineko aldi eta dedikazio baterako kontratatua izan beharko dute, doktore-tesia egiteko kontratatutako pertsonentzat artikulu honetako 6. apartatuan ezarritakoa salbu.

Gutxieneko ikerketa-taldea osatzen duten pertsonak ezin izango dute aurkeztu entitate eskatzailearen konpromisorik, proiektuak irauten duen bitartean kontratuari eutsiko zaiola dionik. Gainerako taldekideek proiektuan izango duten parte-hartzeari dagokiona baino iraupen txikiagoko kontratua izan dezakete, baldin eta entitate eskatzaileak egiaztatzen badu konpromisoa hartzen duela kontratuari eusteko, proiektuan parte hartzen duten aldi osoan zehar.

5.– Ikertzaileak obra baterako kontratatu badira, obraren iraupenari eta, hala badagokio, kontratuaren balizko luzapenari buruzko egiaztagiria aurkeztu beharko dira, bai eta entitatearen adierazpen bat ere, kontratuaren xede den obrak dakarren ordu-dedikazioa zehaztuta; adierazpen horretan, proiektuan konprometitutako jarduerak burutzeko adina ordu badituela adierazi beharko du argi eta garbi.

6.– Doktore-tesia egiteko kontratatutako pertsona bat bada (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21. artikulua arabera), berau finantzatzen duen organismoaren izendapena aurkeztu beharko du, finantzaketa-aldi osoa adierazita; horrez gain, deialdi honetan eskatutako proiektuari urtean zenbat ordu eskain diezazkiokeen azaltzen duen ziurtagiria ere aurkeztu beharko du –doktore-tesia proiektuarekin bateragarria izateko moduan–, bai eta tesia eta proiektuko jardueraren arteko gainjartze-ehunekoa eta tesia zer

zentrotan egin behar duen ere. Entitate eskatzailea BERC bat bada, aski izango da aurreko ziurtagiria, zeinetan, gainera, barne hartuko baita finantzaketa-aldi osoa.

Prestatzen ari den doktoratu aurreko ikertzaile bakar bat baino ez da onartuko proiektu-eskaera bakoitzean.

7.– Deialdiaren ondorioetarako, Ikerbasque Fundazioak Research Professor, Research Associate edo Research Fellow kategorietan kontratatutako ikertzaileak, baldin eta entitate bati atxikita badaude, entitate horretako langileak direla ulertuko da. BERCetako edo IKZetako bati atxikitako UPV/EHUko irakasleak BERCeko edo IKZko langileak direla ulertu ahal izango da, dagokion atxikipen-agirian zehaztutako iraupen eta dedikazioarekin.

7. artikulua.– Laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Ikerketa Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak kudeatzeko lanak egitea.

8. artikulua.– Eskaerak formalizatzea eta aurkeztea.

1.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aurkeztu ondoren, ezingo dira aldatu.

Datuak larriki ezkututzeak edo aldatzeak, edo eskatutako informazioa edo eskaeraren aplikazio telematikoan sartutako dokumentuak manipulatzeko eskabidea ezestea ekarriko du.

2.– Eskaeraren edukia agindu honen II. eranskinean dago. Eskaera egiteko inprimakia IV. eranskinean dago jasota, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa egongo da eskuragarri, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/servicios/0120706>

Eskaera bi urratsetan egin beharko da:

Lehenik, proiektuko ikertzaile nagusia ziurtagiri elektronikoa pertsonalaren bitartez sartu beharko da aplikazioan (esate baterako, NAN elektronikoa erabiliz), eta zehaztutako jarraibideak jarraitu beharko ditu, harik eta eskaera erabat bete arte.

Ondoren, behin eskaeraren alderdi guztiak aipatu aplikazioaren bitartez beteta (aurreko urratsari jarraikiz) eta agindu honen II. eranskinean azaldutako dokumentazio osagarria gehituta, entitateak edo legezko ordezkariak eskaera elektronikoki sinatu beharko du; horrela soilik geldituko da erregistratuta. Horretarako, entitate eskatzaileak eskaera elektronikoki sinatzeko entitate-txartela eduki beharko du, edo, bestela, legezko ordezkariak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordeen erregistro elektronikoa alta emanda egon beharko du (Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio sailburuaren 2012ko abenduaren 14ko Agindua), esteka honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarrien-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>

Deialdi honetara bildutako pertsonak baimena ematen diote Ikerketa Zuzendaritzari, beste erakunde publiko batzuetan egiazta dezaten aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide honetan daude eskuragai: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

4.– Parte hartuko duten gainerako ikertzaileek beren NAN edo AIZ zenbakia adierazi beharko dute eskaeran. Administrazio eskudunak automatikoki egiaztatuko du zenbakia aipatutako aplikazioan, elektronikoki.

5.– Eskaerak honako hauetan aipatutako egoerei buruzko erantzukizunpeko adierazpenak jaso beharko ditu: Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikulua.

6.– Dirulaguntzaren eskabidea aurkezteak berekin ekarriko du organo kudeatzaileak baimena izatea erakunde eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzeko, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritako moduan.

Dena dela, entitate eskatzaileak aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango du. Hala eginez gero, beharrezko egiaztigiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu eskaerarekin batera.

9. artikulua.– Jakinarazpenak eta aurkeztutako eskaerako hutsak zuzentzea.

Zorrotz bete beharreko epe bat adierazten duten jakinarazpenak (esaterako, hutsak zuzentzea eta deialdia ebazteko eskatzea) prozedura honen arabera egingo dira:

1.– Dirulaguntzaren eskaerak oso-osorik beteta etorri ezean edo aginduzko agiri guztiekin batera aurkeztu ezean, hamar eguneko epean akatsak zuzentzeko edo aginduzko agiriak aurkezteko errekerimendua egingo zaie entitate eskatzaileei. Epe horretan ez badituzte akatsak zuzentzen, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hutsak zuzentzeko jakinarazpena elektronikoa izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera bidaliko zaio eskatzaileari (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>). Ziurtagiri elektronikoaren bidez sartu beharko da bertara.

2.– Aurrekoa eragotzi gabe, organo kudeatzaileak eginiko jakinarazpenaren argitalpenaren abi-suak helaraziko dizkie interesdunei, eskaeretan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara SMSak edo mezu elektronikoak bidaliz. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpenaren ondorioz izango.

10. artikulua.– Hautaketa Batzordea eta ebaluazio-prozedura.

1.– Hautaketa Batzordeak laguntzak emateko eta ukatzeko ebazpenaren proposamena egingo du, agindu honetan xedatutakoa zuzen aplikatzen dela begiratur, bereziki ebaluazio-irizpideei dagokienez. Aurrez erabaki beharko du zein eskaera onartu izapidetzeko, eta zein ez.

2.– Batzorde hori hauek osatuko dute: Amaia Esquisabel Alegria, Ikerketaren zuzendaria (batzordeburua izango da); Sara Urionabarrenetxea Zabalandikoetxea, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria; eta Iban Ariznabarreta Barrutia, Ikerketa Zuzendaritzako teknikaria (idazkaria izango da).

3.– Proiektuen ebaluazioak bi urrats izango ditu. Lehenik, onartu den eskaera bakoitzari buruzko txostenak eskatuko dizkio Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari, zeinak 11.1 artikuluan aipatzen diren irizpideen arabeko puntuazioa eman beharko baitu, 8 zenbakia duen irizpiderako izan ezik, hurrengo artikuluan azaltzen denaren arabera.

Bigarrenik, Hautaketa Batzordeak berak 8. irizpidea baloratuko du, proiektu bakoitzak EAEko ikerketarako estrategiei eta plangintzei begira duen garrantziari buruzkoa.

Ebaluazioaren bi fase horien emaitza izango da puntuazio orokorra.

11. artikulua.– Ebaluazio-irizpideak.

1.– Dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamena prestatu ahal izateko, Hautaketa Batzordeak jarraian aipatzen diren irizpideak izango ditu kontuan, eskaerak ebaluatu, aukeratu eta lehentasunen arabera ordenatu ahal izateko:

Irizpideak	Gehieneko puntuazioa
1.– Proiektuaren kualifikazio zientifiko-teknologikoa: proposamenaren interes zientifikoa, ekonomikoa eta soziala, originaltasuna eta izaera berritzailea, egokitzapen metodologikoa eta teknika instrumentalak.	25
2.– Proiektua kudeatzeko plana: metodologia eta teknika instrumental egokiak; lan-plan bideragarria eta egin daitekeena. Arduren banaketa.	20
3.– Ikertzaileen kalitate zientifikoa, baita curriculum vitaean adierazitako argitalpen zientifikoena eta patenteena ere.	10
4.– Ikergaiak ikertzaileek duten alde zuzeneko esperientzia.	10
5.– Aurreko deialdietan finantzaturako azken 5 proiektuetan lortutako errendimendu-maila eta produktibitate zientifikoa.	15
6.– Proposatutako helburuetara egokitzea eta eskatutako finantza-baliabideak justifikatzea.	5
7.– Ikertzaile-taldea diziplina anitzekoa izatea.	10
8.– Lortu nahi diren emaitzen garrantzia eta eragin ekonomikoa: proiektuak Espezializazio Adimenduneko Estrategian (RIS3) eta ZTBP Euskadi 2030 Planean zehaztutako helburuei egokitzea.	5
Guztira	100

2.– 8. irizpidea baloratzeko, zeina EAEko estrategiei eta plangintzei begira proiektu bakoitzak duen garrantziari buruzkoa baita, Hautaketa Batzordeak agindu honen III. eranskinean deskribatutako itemei jarraituko die.

3.– Ebaluazio-sistema homogeneizatzeko eta irizpideak aplikatzean objektibotasun handiagoa lortzeko, balorazio-irizpideen xehetasunak jaso dira deialdiaren III. eranskinean, ebaluatzaileei euren lanean laguntzeko eta ebaluazio-prozedura gardenagoa izan dadin.

4.– Puntuazio orokorrean berdinketarik egonez gero, 1. irizpidearen arabera lortu den kalifikazio handiena hartuko da aintzat, lehenik; berdinketak jarraitzen badu, 2. irizpidearen arabera; gero 3. irizpidearen arabera eta, azkenik, 4. irizpidearen arabera. Guztiarekin ere berdinketak jarraitzen badu, ebazteko oinarritzat hartuko da eskaerak betetzeko aplikazioak eskaera bakoitzari ematen dion ausazko zenbakia, txikitik handira. Zenbaki hori aplikazio telematikoan sortzen den eskabide-inprimakian agertuko da.

12. artikulua.– Laguntzak esleitzeko prozedura.

1.– Dirulaguntzak lehiaketa bidezko norgehiagoka-prozeduraren bidez emango dira, eta proiektuaren iraupen osorako izango dira. Horretarako, Hautaketa Batzordeak egingo du laguntzak esleitzeko proposamena, aurkeztutako eskaerak ebaluatu ondoren.

2.– Ebaluazioan 50 puntu edo hortik gorako balorazioa lortzen duten eskaerak bakarrik lagundu daitezke diruz.

3.– Onartutako aurrekontua eskatutako aurrekontua izango da, 5. artikuluan ezarritakoari jarraituz, diruz laguntzekoak diren kontzeptu eta gastuetara egokitzen dela egiaztatzen ondoren. Eman beharreko dirulaguntza bat etorriko da onartutako aurrekontuaren gehieneko zenbatekoarekin, baldin eta dagokion prozeduran adierazitako kredituak agortu ez badira eta 2. artikuluan ezarritako mugarekin. Urteka banatuko da dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa, aipatu diren beharren eta onartutako lan-planaren arabera.

4.– Laguntzak lehentasun-ordenari jarraikiz esleituko dira, balorazio-fasean proiektu bakoitzak kasuan kasu lortutako puntuazio orokorraren arabera.

13. artikulua.– Ebaztea eta onartzea edo ukatzea.

1.– Hautaketa Batzordeak Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari aurkeztuko dio ebazpen-proposamena, eta sailburuordeak esleitu egingo ditu, eskuragarri dagoen kreditua agortu delako dirulaguntzarik jaso ez duten eskaerekin erreserba-zerrendak egingo ditu, eta, hala bada-gokio, eskabideak ukatu, eta bazterketak zehaztuko ditu, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ebazpen horren berri artikulua honetako 3. zenbakiaren arabera jakinaraziko da.

2.– Onartzen den proiektu bakoitzari buruzko datu hauek jaso beharko dira ebazpenean:

Finantzatutako eskaerarako:

- Eskaeraren kodea.
- Ikerketa-proiektuaren titulua.
- Entitate eskatzaileko ikertzaile nagusiaren izena.
- Entitate onuraduna.
- Proiektua burutuko den urteroko bakoitzari zer diru-zenbateko esleituko zaion.

Finantzatuko ez diren edo baztertu diren eskaerarako, hau adieraziko da:

- Eskaeraren kodea.
- Ikerketa-proiektuaren titulua.
- Entitate eskatzaileko ikertzaile nagusiaren izena.
- Entitate eskatzailea.
- Ez finantzatzeko edo baztertzeko arrazoia.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz jakinaraziko da aipatutako ebazpena (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>). Era berean, jakinarazpen elektronikoa bat igorriko da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>), eta ziurtagiri elektronikorekin sartu beharko da bertara. Horrez gain, publikotasun-ondorioetarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian zerrenda bat argitaratuko da (ebazpena iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo bi hilabeteen barruan), adierazteko nortzuk diren onuradunak eta zenbateko dirulaguntza emango zaien.

Aurrekoa eragotzi gabe, organo kudeatzaileak jakinarazpenaren argitalpenari buruzko abisuak helarazi ahalko dizkie interesdunei, eskaeretan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoei SMSak edo mezu elektronikoa bidaliz. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpenaren ondorioz izango.

4.– Ebazpen horren aurka interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahalko diote Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Deialdi hau argitaratzen denetik hasita sei hilabeteko epean ebazpenik ematen edo jakinarazten ez bada, eskaerak ezetsitatzat jo ahal izango dira administrazioaren isiltasunagatik. Administrazio

Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1.d) artikuluan ezarritakoarekin bat eginez, ebazpena emateko epe hori eten egin ahal izango da, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak 10.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz egin beharreko txostenak direla medio, txosten horiek eskatu eta jaso bitarteko aldian. Etenaldiak ezingo du, behin ere, hiru hilabete baino gehiago iraun.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren egoitza elektronikoan ebazpena argitaratzen denetik hasita 10 eguneko epean entitate onuradunak dirulaguntzari espresuki uko egiten ez badio, onartu egiten duela ulertuko da. Une horretatik aurrera hasiko da proiektua egikaritzen, urtebeteko, bi urteko edo hiru urteko aldian, ebazpenean zehaztutakoaren arabera.

Dirulaguntza emateko ebazpena argitaratu eta hurrengo 10 egunetan uko eginez gero, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpen bidez emango zaizkie laguntzak erreserba-zerrendan agertzen diren eskabideei.

Laguntza horiek emandako azken laguntzaren ondoren dauden eskabideei emango zaizkie, baldin eta 12. artikuluan xedatutakoaren arabera beharrezko puntuak lortu badituzte. Esleitu beharreko zenbatekoa, gehienez, uko egindako eskabideari legokiokeen zenbatekoa izango da, Hautaketa Batzordearen balorazioaren arabera.

Organo emaileak erakunde interesdunei jakinaraziko die emakida-proposamena, 10 egun naturaleko epe luzaezinean proposamena onar dezaten. Proposamena onartu ondoren, dirulaguntza emateko ebazpena emango da eta erakunde interesdunei jakinaraziko zaie.

6.– Deialdi honetan parte hartu duen entitate onuradunen batek beste erakunderen baten finantzaketa lortu badu proiektu bererako, eskaera aurkeztu edo ebazpena eman eta gero, Ikerketa Zuzendaritzari eman beharko dio horren berri, gainfinantzaketarik baldin badago, deialdi honen bidez emandako finantzaketa behar beste murrizteko.

14. artikulua.– Beste dirulaguntza eta laguntza batzuekiko bateragarritasuna/bateraezintasuna.

Dirulaguntza hau bateragarria da helburu bererako beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batek emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, salbu eta sail honek euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerari laguntzeko deialdian ematen dituen dirulaguntzekin. Baldin eta ikerketa-proiektu batek beste erakunde baten deialdian edo Eusko Jaurlaritzako beste sail baten deialdian parte hartzen badu eta zati batean behintzat finantzatua izan bada, beste erakunde horren finantzaketak estaltzen ez duen zatia deialdi honen bidez osatu ahal izango da, baina guztizko finantzaketak ezingo ditu gainditu ikerketak dituen diru-beharrak. Gainfinantzaketarik detektatuz gero, dagokion diru kopurua murriztuko da deialdi honen bidez emandako finantzaketan. Eskatzaileak argi eta garbi azaldu beharko du zein diren kanpoko finantzaketaren xedea, jarduerak, zenbatekoa eta banaketa.

15. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzeko baldintzak.

1.– Entitate onuradunari ordainduko zaio dirulaguntzaren zenbatekoa.

2.– Urterokoak aurretik ordainduko dira, egikaritze-faseko urte bakoitzean. 13.5 artikuluan deskribatutako dirulaguntza onartzeko aldia igaro ondoren egingo da lehen urterokoari dagokion ordainketa. Bigarren eta hirugarren urterokoan ordainketa aurreratuak egin baino lehen, aurreko urteko txostena aurkeztu beharko da, baita helburuen betetze-mailaren eta dirulaguntzaren egikaritzearen justifikazio zuzena ere, onartutako proiektu-planean aurreikusitako eran. Halaber, justifikazio-kontu sinplifikatua aurkeztu beharko da nahitaez, aplikazioan eskuragarri dagoen txantiloien bidez.

Proiektua egikaritzeko azken urteari dagokionez, dirulaguntzaren % 75 ordainduko da aurrez. Azken urterokoari dagokion bigarren ordainketa –egindako ordainketaren ondoren gelditzen den zenbatekoa–, entitate onuradunak dagokion dokumentazio guztia –aginduaren 16. artikulua 1., 2., 3. eta 4. zenbakietan zehaztutakoa– bidali eta lkerketa Zuzendaritzak oniritzia eman ondoren onartutakoan egingo da.

Hala badagokio, laguntzaileek jarduera uzten badute, erakundeari kalte-ordainak ordainduko zaizkio, azken urteko bigarren ordainketarekin batera.

3.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako dagokion datu-basean egon behar du entitate onuradunak. Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzaren hirugarrenen erregistro telematikora jo beharko da: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datu-aldaketa/>

16. artikulua.– Proiektuaren garapenari eta dirulaguntzaren justifikazioari buruzko dokumentuak.

Dirulaguntza 13.5 artikuluan zehaztutakoaren arabera onartu ondoren, dirulaguntza egikaritzeko fasea hasiko da, baita haren jarraipena egitekoa ere. Horretarako, erakunde onuradunak jarraipenerako eta justifikaziorako honako agiri hauek entregatu beharko ditu aplikazio telematikoa erabiliz eta legezko ordezkariaren sinadura elektronikorekin, adierazitako epeetan (aplikazio telematikoa eskainiko ditu behar diren txantilo edo ereduak):

1.– Laguntzaileen kontratua, 5.2.a) artikulua arabera: dirulaguntzak laguntzaileentzako diru-hornidurarik badu, laguntzaileari buruzko proposamena bidali beharko da, zeinean ikertzailea nor den, haren ibilbide akademikoa edo CVa eta adostasuna jasoko baitira. Geroago, organo kudeatzaileak proposamena onartutakoan, laguntzailea entitate onuradunarekin lotzen duen kontratuaren kopia bidali beharko da. Kontratuan zer proiektutan parte hartuko duen zehaztuko da, eta urteko dedikazioa berariaz jaso beharko da. Kontratu hori ezingo da ebazpenaren argitalpena baino lehenagokoa izan, eta, zein urtetarako zehazten den, harexen lehen sei hilabeteetan aurkeztu beharko da.

2.– Urteko txostenak: 15.2 artikuluan aurreikusitako bigarren ordainketa edo ondorengoak baino lehen aurkeztu beharko dira nahitaez. Entitate onuraduneko ikertzaile nagusiak, egikaritze-urte bakoitza amaitzean, gastuen justifikazio-kontu bat aurkeztu beharko dio organo kudeatzaileari, aplikazioan sartutako txantiloaren arabera, bai eta dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko ekintzen inguruko memoria bat ere, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Gastuak egiaztatzeko, fakturak eta gainerako froga-balio baliokidea duten agiriak aurkeztu beharko dira, merkataritzako trafiko juridikoan balioa dutenak edo eraginkortasun administratiboa dutenak.

Jarduera-planaren edozein ataletan aldaketak egin nahi badira, ikerketa-zentroko edo unibertsitateko legezko ordezkariak baimena eskatu beharko dio Ikerketa Zuzendaritzari. Egindako eta baimendutako aldaketek errespetatu egin behar dituzte Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak eta Hautaketa Batzordeak dagokion puntuazio-kalkulua egiteko erabili dituzten elementuak. Ikerketa Zuzendaritzak zehaztuko du aldaketa horiek konprometitutako dirulaguntzak aldarazten edo indargabetzen dituzten, aurretik dagokion espediente egin ostean.

3.– Amaierako gastu-ziurtagiria: proiektua egikaritzeko azken urtea amaitzerakoan, aurreko apartatuan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du, egindako gastu guztiaren ziurtagiriarekin batera, kontzeptuen arabera banaketa adieraziz, eta, aplikatu gabeko gerakinik balego, hori ere justifikatuz. Era berean, proiektu bererako edo proiektuaren helburu partzialetarako jasotako sarreren balantzea –halakorik balego– eta egindako gastuen balantzea aurkeztu beharko du. Ziurtagiri hori proiektua amaitu osteko lau hilabeteko epean aurkeztu behar da. Gastuak egiaztatzeko,

fakturak eta gainerako froga-balio baliokidea duten agiriak aurkeztu beharko dira, merkataritzako trafikoko juridikoan balioa dutenak edo eraginkortasun administratiboa dutenak.

Guztira gastuaren % 40 baino gehiago egikaritzen ez bada gutxienez eska daitekeen eskakizuntzat hartzen denez, dirulaguntza-eskubidea galdu egingo da (18.2 artikulua).

4.– Amaierako txosten zientifikoa: formatu askea izango du, eta nahitaez egin behar da, azken urtea ordainduko bada. Proiektua egikaritzeko azken urtea amaitu ondoren lau hilabete igaro baino lehen, proiektuko ikertzaile nagusiak amaierako txosten zientifikoa aurkeztu beharko du, eta, bertan, zehaztasun handiz adierazi zein diren aurrekariak, bibliografia, helburuak, metodologia, emaitzak, emaitzen eztabaida, ondorioak eta zabalkundea emateko eta jendarteratzeko jarduerak.

5.– Argitalpenak: baldin eta liburu, monografia, artikulua, doktore-tesi, lizentzia-tesina, kongresuetarako komunikazio edo abarretan argitaratu badira proiektuaren emaitzak, edo patenteak, kontratuak, baliagarritasun-modeloak eta abar eragiten badituzte, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren babesletzaren berri eman beharko da, proiektuaren kodea ere aipatuz. Argitalpenen kopia bana bidali beharko da Ikerketa Zuzendaritzara.

6.– Ikerketa Zuzendaritzak berrikusiko ditu amaierako txosten zientifikoa eta egindako argitalpenak, eta, gainera, egiaztatuko du ikerketa-proiektuaren hasierako eskaeran onetsitako helburuak eta lan-plana bete direla. Desadostasunik ikusiz gero, txosten horien ebaluazio zientifikoa egin ahal izango zaie, 10. artikuluan aurreikusitako ebaluazioaren ildo beretik. Aipatu ebaluazioan 100 puntutik 50 ez lortzea itzultzeko kausa izango da, eta 19. artikuluari jarraikiz jardungo da.

Salbuespenez, ikerketa-proiektua bukatzea eta, ondorioz, dirulaguntza osorik erabiltzea eragotzi duten arrazoiak egon badira, ikertzaile nagusiak, entitateko legezko ordezkariaren oniritziarekin, proiektua egikaritzeko eta kreditua gastatzeko epealdia luzatu dadila eskatu ahal izango dio Ikerketa Zuzendaritzari. Luzapenak ez du gaitzartuko hiru hilabeteko epea proiektua egikaritzeko materialari dagokionez, eta ez dio inolaz ere eragingo emandako urteroko betearazpenari. Egikaritze-amaiera gisa aurreikusitako eguna baino lehen egin beharko da eskaera.

Luzapen-eskaeran emandako arrazoiak hirugarrenek esku hartzeko aurreikusitako epeen luzapenari (hornidurak eta argitalpenak) edo laguntzaileek aurreikusitako aldietan beren jardura egiteko duten ezintasunari buruzkoak bakarrik izan ahalko dira, betiere behar bezala justifikatzen bada.

17. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Betebehar hauek izango dituzte agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradunek: Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan xedatutakoak; zehatzago esanda, hauek:

1.– Jarduera egitea edo dirulaguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.

2.– Dirulaguntza eman duen erakundearen aurrean justifikatzea dirulaguntza emateko edo jasotzeko bete behar diren betekizunak eta baldintzak betetzen direla, bai eta jarduera egin dela ere. Jarduera hori pertsonen buruzkoa denean, sexuaren arabera bereizitako datuak sartuko dira.

3.– Dirulaguntza ematen duen organoak edo erakundeak egin beharreko egiaztapen-jarduketan mende jartzea, bai eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura jasotako dirulaguntzei dagokienez egin beharreko kontrol-jarduketan mende ere, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren berriazko araudian aurreikusitakoen eta finantza-zioa dela-eta beste kontrol-organo batzuek egin ditzaketenen mende ere.

4.– Beste edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik helburu bererako jasotako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea dirulaguntza eman duen erakundeari.

Jakinazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik edo unean.

5.– Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein inguruabar objektibo edo subjektiboren aldaketaren berri ematea dirulaguntza eman duen erakundeari.

Jakinazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu aurretik edo unean.

6.– Dirulaguntza ordaintzeko unean, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea, bai eta dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak ere, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduak, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzeari buruzkoak, eta dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak, ezartzen duen moduan, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.

7.– Izaera juridikoak hala eskatzen badu, kontabilitateko liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako dokumentuak behar bezala ikuskatuta edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikagarri zaion merkataritzako eta sektoreko legeriak eskatzen duen moduan, bai eta dirulaguntzen oinarri arautzaileek eskatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko guztiak ere, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala erabiltzen direla bermatzeko.

8.– Jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan daitezkeenean.

9.– Dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 27. artikuluan jasotako zabalkunde-neurriak hartzea.

10.– Jasotako funtsak edo diruz lagundutako jardueraren kostuaren gaineko soberakina itzultzea, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan jasotako kasuetan.

11.– Hizkuntzaren eta irudien erabilera interseksionala errespetatzea, eta, bereziki, sexuaren eta generoaren alderdia, diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak eskatzen dituen dokumentazio eta material guztietan.

12.– Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea, eta, bereziki, diruz lagundutako jarduerarekin lotutako argitalpen, iragarki eta publizitatean euskararen erabilera bermatzea.

18. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea. Gutxieneko betekizun galdagarriak.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, baina dirulaguntzen helburua bete dela ulertzen bada, edo beste instituzio publiko edo pribatu batek emandako laguntzarik ere eskuratu bada, dirulaguntzak emateko ebazpeneko diru-kopuruak ere aldatu ahal izango dira. Dirulaguntza jasotzeko baldintzen aldaketatzat joko dira, halaber, behar bezala justifikatzen edo egiaztatzen ez diren gastuak; kasu horretan, beraz, dirulaguntzaren zenbatekoa aldatzeko ebazpena emango da.

Horretarako, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak beharrezko likidazio-ebazpena eman beharko du, eta ebazpen horretan berriro doituko dira emandako dirulaguntzen zenbatekoak, honela:

– Dirulaguntzaren xede diren gastuak ez badira behar bezala justifikatzen, ebazpenaren zenbatekoa murriztu egingo da. Justifikatu ez den gastuaren zenbatekoan murriztuko da laguntza.

– Entitate onuradunak ikerketa-proiektu bererako beste edozein administrazio edo ente publiko zein pribaturen dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jaso baditu eta deialdi honen ebazpenean esleitutako zenbatekoak Hautaketa Batzordeak onartutako aurrekontuari kofinantzaketaren bidez eskuratutako zenbatekoa kenduta geratzen dena gainditzen badu, emandako dirulaguntza behar beste murriztuko da.

2.– Aldaketa horiek bidezkotzat jo daitezke, baldin eta agindu honen bitartez lagundutako proiektuek gutxieneko baldintza hauek betetzen badituzte:

– 6.1 artikuluan deskribatutako ikerketa-taldeen osaera.

– Aurreko deialdietan diruz lagundutako proiektuetan parte hartu duten ikertzaileen bateraezintasuna, 6.2 artikulua laugarren paragrafoan deskribatua.

– Proiektuaren guztizko gastuaren % 40 baino gehiago egikaritzea, (16.3 artikuluan deskribatutako amaierako gastu-ziurtagirian jasotakoa).

Baldintza horietako edozein betetzen ez bada, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu egingo da, eta, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari jasotako zenbatekoak gehi bidezkoak diren berandutze-interesak ordaintzeko obligazioa sortuko da.

19. artikulua.– Dirulaguntzarako eskubidea galtzeko edo dirulaguntza itzultzeko arrazoia.

1.– Ikusiz gero ez direla betetzen dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak, jasotako dirua eta dagozkion berandutze-interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkio, xedapen hauen arabera: Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikulua; arau-hausteen eta administrazio-zehapenen arloko oinarritzko araudia; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 37. artikulua, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua.

2.– Arau-hauste administratibo diren kasuetan, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean laguntzen eta dirulaguntzen arlorako ezarritako arau-hauste eta zehapenen araubidea aplikatuko da.

3.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean azaldutako kauez gain, honako hauek ere dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzeko edo dirulaguntza itzultzeko kausatzat hartuko dira:

3.1.– Proiekturako eskubidea egin duen ikertzaile nagusiak ikerketa-proiektuari uko egitea edo ikertzaile hori entitate onuraduna ez den beste entitate batera edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora aldatzea, baldin eta horrek arriskuan jartzen badu proiektuaren zuzendaritza eta aurreikusitako helburuak lortzea.

3.2.– Ikerketa proiektu bera egiteko beste iturri batzuetatik jasotako finantzaketak metatzen badira edo ikerketa proiektuaren aldaerak, behar bezala justifikatu gabeak, beste entitate, erakunde edo zentro publiko edo pribaturen bati aurkezten bazaizkio finantzatzeko laguntza eske, aurrez Ikerketa Zuzendaritzari horren berri eman gabe eta haren onarpena jaso gabe.

3.3.– Ikerketa-proiektua ez garatzea proposatutako helburuen eta onartutako epeen arabera.

3.4.– Deialdi honetako oinarrien ez-betetze larria (osoa edo partziala), honako hauei buruzkoak barne: urteko txostenen, gastu-ziurtagiriaren eta amaierako txostenaren ebaluazioari buruzkoak (16. artikulua) eta gastuaren justifikazio-agiriak gordetzeari buruzkoak (17.6 artikulua).

3.5.– Laguntzen izaera publikoari buruzko zabalkunde-neurriak hartzeko betebeharra ez betetzea, agindu honen 16. artikulua 1.5 apartatua eta Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan xedatutakoarekin bat.

3.6.– Datuak larriki ezkutatzea edo aldatzea, edo eskaera manipulatzeari.

4.– Aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, jada ordaindutako dirulaguntza baino zenbateko txikiagoko gastuak justifikatzeak berarekin ekarriko du dirulaguntza murriztea justifikatu gabeko zenbatekoan, eta jasotako dirulaguntzen itzulketa proportzionala egingo da.

5.– Itzulketarako, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan horretarako ezarritako prozedura beteko da, hargatik eragotzi gabe bidezkoak diren gainerako ekintzak; dekretu horren bidez arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra, eta kudeaketa horretan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ere ezartzen dira. Aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

20. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko: Laguntzak eta dirulaguntzak (ikerketa sustatzekoak).

Arduraduna: Ikerketa Zuzendaritza – Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila.

Helburua: ikerketa finantzatzea eta bultzatzea.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena.

– 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko.

– 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

Hartzaileak:

– Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ogasun eta Finantza Saila.

– Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

Eskubideak: entitate eskatzaileak eskubidea du datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: entitate eskatzaileak datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta xehea kontsultatu dezake gure web-orrian: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/054300-cap2-eu.shtml>

Araudia:

Datu Pertsonalak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>).

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Aurretiaz izapidetzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espeditentzarako aurretiaz izapidetzea arautzeko buruzko Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan aipatzen diren ondorioetarako, Agindu honetako laguntzak ebatziko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2025. urteko aurrekontu orokorretan kreditu egokia eta behar adinakoa badago.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, bi hilabeteko epean, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 3a.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua,
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS.

I. ERANSKINA

DEIALDIAN AURKEZTEN DIREN PROIEKTUEK BETE BEHARREKO PRINTZIBIOAK

Deialdian aurkeztzen diren proiektuek printzipio hauek bete beharko dituzte:

a) Adierazpen eta hitzarmen hauetan ezarritako oinarritzko printzipioak: Helsinkiko Adierazpena (Munduko Medikuntza Elkarteak); Giza eskubideei eta biomedikuntzari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena; Giza genomari eta giza eskubideei buruzko Unescoren Adierazpen Unibertsala, eta ikerkuntza biomedikoari, datu pertsonalen babesari eta bioetikari buruz Espainiako legedian ezarritako baldintzak.

b) Gizakiekin ikerketak egitea edo giza jatorriko laginak erabiltzea dakarten proiektuek Ikerkuntza Biomedikoaren uztailaren 3ko 14/2007 Legean xedatutakoa bete behar dute.

Era berean, lege horri lotuta egongo dira jatorria giza enbrioietan duten zelulak eta ehunak edota horietatik eratorritako zelula-lerroak erabiltzea espezifikoki eskatzen duten ikerkuntza-proiektuak.

c) Saiakuntza klinikoak xede dituzten proiektuek 1090/2015 Errege Dekretuan xedatutakoa bete behar dute (1090/2015 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, sendagaiekin egiten diren saiakuntza klinikoak, sendagaien ikerketarako etika batzordeak eta Azterketa Klinikoen Espainiako Erregistroa arautzen dituena).

d) Animaliekin esperimentuak egitea dakarten proiektuek indarrean den lege-araubidean ezarritakoa bete beharko dute, eta bereziki otsailaren 1eko 53/2013 Errege Dekretuan ezarritakoa, esperimentuak egiteko eta bestelako helburu zientifikoetarako nahiz irakaskuntzarako erabiltzen diren animaliak babesteko oinarritzko arauak ezartzen dituena.

e) Genetika aldatuta daukaten organismoak erabiltzea dakarten proiektuetan bete beharko dira, batetik, Genetika aldatuta daukaten organismoak bakarturik erabiltzeari, borondatez askatzeari eta merkaturatzeari buruzko apirilaren 25eko 9/2003 Legea, eta, bestetik, lege hori garatzen duen araudi orokorra onesten duen urtarrilaren 30eko 178/2004 Errege Dekretua.

f) Agente biologikoak erabiltzea dakarten proiektuak Laneko arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean eta hura garatzen duten errege-dekretuetan xedatutakoari egokitu beharko zaizkio, agente biologikoekin kontaktuan izatearen ondoriozko arriskuei dagokienez.

g) Azkenik, material genetikoa hartzea edo trukitzea xede duten proiektuek honako hauek bete beharko dituzte: Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmena, Elikadurarako eta Nekazaritzarako Baliabide Fitogenetikoei buruzko Nazioarteko Ituna, eta uztailaren 26ko 30/2006 Legea, Mintegiko Haziei eta Baliabide Filogenetikoena.

II. ERANSKINA

ESKAERAREN EDUKIA

1.– Eskaeran informazio hau jasotzen da:

a) Entitate eskatzailearen nortasuna, sinadura elektronikoaren bidez; eta ikertzaile nagusiaren sinadura, NANaren edo AIZren bidez.

b) Ikerketa-taldeak egingo duen lan-planari buruzko informazioa: helburuak, zereginen esleipena eta ikertzaile bakoitzaren ordu-dedikazioa.

c) Eskatutako proiektua garatzen ari den bitartean ikerketa-taldeak aktibo edo eskaera-fasean dauden beste ikerketa-proiektu batzuetan parte hartu behar badu, haien identifikazioa eta iker-tzaile bakoitzak zenbat ordu eskainiko dien.

d) Parte hartuko duen ikertzaile bakoitzaren nortasuna, NANaren edo AIZren bidez; horretaz gain, datu pertsonalak, titulazio akademikoa, kontratu-mota eta kontratatutako urteko ordu-dedikazioa.

e) Aurrekontua: informazio ekonomikoa, diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen arabera, eta kostu ekonomikoa, urterokoen arabera (5. artikulua).

f) Entitate eskatzailearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, 8.6 artikuluan jasotako eskakizunei buruzkoa. Adierazpen horretan jasoko du, halaber, aurkeztutako proiektuak printzipio bioetikoei buruz 4.3 artikuluan ezarritakoa betetzen duela.

2.– Eskaerarekin batera, dokumentazio teknikoa zein administratiboa aurkeztu behar da:

2.1.– Dokumentazio teknikoa:

Dokumentazio administratibotik bereizita, eta aplikazioak sortzen duen eskaerarekin batera, dokumentazio teknikoan jasotako informazioa baliatuko da aurkeztutako proposamen zientifikoa-ren ebaluazio teknikoa egiteko.

a) Ikerketa-proiektuaren memoria, alderdi hauek jasoko dituen:

- Laburpena.
- Gaiaren aurrekariak eta oraingo egoera.
- Bibliografia aipagarriena.
- Proiektuaren interes orokorra.
- Hipotesiak eta helburu orokor eta operatiboak.
- Proiektuaren azken emaitza eta emaitzak ustiatzeko plana.
- Helburuei lotutako mugarriak. Lan-plana. Kronograma. Ikertzaileek zereginei eskainiko dieten denbora.
- Mugarri bakoitzean erabilitako metodologia.
- Proiektua burutzeko eskuragarri dauden instalazioak, tresnak eta teknikak.
- Arduren banaketa.

- Ikerketa-taldeak gaiaren inguruan duen esperientzia.
- Egindako azken 5 proiektuen emaitzak eta errendimendua.
- Eskatutako dirulaguntzaren justifikazio zehatza.
- Bi entitateren edo gehiagoren arteko lankidetzak, hala dagokionean.

b) Ikertzaile-taldea osatzen duten ikertzaileetako bakoitzaren curriculum vitae laburtua, formatu normalizatuan, horretarako prestatutako txantiloian aurkeztua (azken 6 urteei buruzkoa, deialdiaren datatik aurrera). CVa titularrak sinatu beharko du. Ezaugarri horiek betetzen dituzten CVak bakarrik hartuko dira kontuan, eta ezaugarri horiek betetzen ez dituztenei dokumentuak zuzentzeko eskatuko zaie.

c) Eskatutako material inbentariagarriaren proformako fakturak, hala dagokionean.

d) Ezaugarri teknikoetan oinarrituta proposamenaren balorazio zuzena egiteko egokitzat jotzen den dokumentazio teknikoa.

2.2.– Dokumentazio-administratiboa:

e) Parte hartuko duen ikertzaile bakoitzak sinatutako agiria (erantzukizunpeko adierazpena), 2025-2027 aldian aktibo dauden proiektuei zenbat denbora eskainiko dien adierazita; horrez gain, zehaztu behar da bakoitzak zenbat denbora eskainiko dion eskatutako proiektuari, 6.3 artikularen arabera.

f) Ikertzaile bakoitzak entitate eskatzailearekin duen lan-egoera egiaztatzen duen dokumentazioa.

– Kontratu mugagabea duten langileak badira, dagokion kontratua edo Gizarte Segurantzako kotizazio-datuen txostena aurkeztu beharko da.

– Gutxieneko ikerketa-taldeko langileak badira, gutxienez proiektuaren egikaritze-fasearen iraupen bera izango duen kontratu bat aurkeztu beharko dute, eta, proiektuko ikertzaile nagusia izanez gero, 4 hilabeteko aldi gehigarria, 4.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Gutxieneko taldea osatzen duten pertsonak EZIN izango dute aurkeztu entitate eskatzailearen konpromisorik, proiektuak irauten duen bitartean kontratuari eutsiko zaiola dionik, 6.4 artikularen arabera.

– Ikerketa-taldeko langileak badira, baina ez gutxieneko taldekoak, kontratua aurkeztu beharko dute, non zehaztuta agertuko baitira hasiera- eta amaiera-datak, urteko dedikazioa eta, hala bada, dagokio, entitate eskatzailearen konpromisoa, proiektuan parte hartzen duten aldi osoan kontratuari eutsiko zaiola diona, 6.4 artikularen arabera. Obra-kontratua duten langileen kasuan, gainera, kontratatu den obrari dagokion ordu-dedikazioa adierazi beharko da, 6.5 artikularen arabera.

– Ikerbasquek kontratatutako eta entitate eskatzaileari atxikitako ikertzaileak badira, Ikerbasquek egindako kontratua eta entitate eskatzailearekiko atxikipen-agiria aurkeztu beharko dituzte, eta UPV/EHUK kontratatuta eta entitate eskatzaile den BERC bati atxikita badaude, UPV/EHUK egindako kontratua eta dagokion atxikipen-agiria.

g) Hala badagokio, doktoratu aurreko laguntza emateko edo-eta izendatzeko dokumentua, proiektuan parte hartzeko baimenaren ziurtagiria eta laguntza aplikatzeko zentroarena, 6.6 artikularen arabera.

h) Hala badagokio, dirulaguntzak eta laguntzak lortzeko desgaitzei eta zehapenei buruz 3.2.a) artikuluan xedatutakoarekin lotutako dokumentazioa.

i) Entitate eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak, 3.2.b) artikuluan aipatutakoak, baldin eta eskatzaileek, 8.6 artikuluan aurreikusi bezala, aurka egiteko eskubidea erabili badute.

j) Betekizun administratiboetan oinarrituta, proposamenaren balorazio zuzena egiteko egokitzat jotzen den dokumentazio administratiboa.

III. ERANSKINA
 OINARRIZKO IKERKETAKO ETA IKERKETA APLIKATUKO PROIEKTUAK 2025-2027
 EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK	Irizpidearen gehieneko puntuazioa: 25
1.- Proiektuaren kualifikazio zientifiko-teknologikoa: proposamenaren interes zientifikoa, ekonomikoa eta soziala, originaltasuna eta izaera berritzailea, egokitzapen metodologikoa eta teknika instrumentalak.		
1)	Dirulaguntza publikoa eskatzen denez, garrantzizkoa da zehaztea funtsean ezaguitza berria edo berritzailea sortuko den, nolabaiteko arriskuarekin, edo, bestela, proiektuaren helburua lan bat ebatzi, zerbitzua eman edo aurretik zeuden ezagupenen garapena edo aplikazioa egitea den, jatorrizko ezagupen berririk sortu gabe, halakoetan ez baita finantzaketarik eman behar.	
2)	Proiektuaren xedea adierazten da, labur eta zehatz adierazi ere, eta argi eta garbi erdiets daiteke proiektuaren amaieran, helburuak bete ondoren.	
3)	Helburuak konretuak, zehatzak, neurgarriak eta logarriak dira, eta euren bidez proiektuaren helburua gauza daiteke. Proiektua osatzen duten mugarrien ezaugarri tekniko espezifikoak edo eskakizunak definitzen dira, jarritako helburu (helmuga) bakoitzaren eskakizunak eta ezaugarri teknikoak zehaztuz, halako moldean non, amaitzen denean, helburua lortu izanaren segurtasuna izango den.	
4)	Badakite gaia zertan den, eta proiektuaren xedetik gertu dauden emaitzak lortzeko egun erabiltzen diren aukerak ere ezagutzen dituzte.	
5)	Hobetsitako aukeraren faktorerik berritzaileenak definitzen dira, abantaila zientifiko eta teknologiko nabarmenak erakutsiz.	
6)	Metodologia eta tresna-teknikak oso lotuta daude helburuekin.	
7)	Erabili beharreko metodologiak gaur egungoak dira, egokiak, eta helburuak lortzeko behar diren emaitzak ateratzea edo sortzea bermatzen dute. Metodologia jakin bat erabiltzea justifikatzen da.	
8)	Ikerketa-kostuak eta espero diren balizko onura ekonomikoak proportzioan daude.	
9)	Ikerketa-arriskurik bada, helburuetakoren batean porrota izateko arriskuak neurtuta/kalibratuta daude, eta gorabehera hori gainditzeko aukerak ere badaude.	
10)	Argi eta garbi ikusten dira proiektuaren erabilgarritasuna eta aplikazio industrialak eta sozioekonomikoak.	
11)	Bada, proiektuaren ondorio gisa, gaiari buruzko aldizkari espezializatuetan argitalpen zientifikoren bat egiteko aukera.	
12)	Patenteren bat edota jabetza intelektualeko erregistroren bat egitea espero daiteke.	

IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK		IRIZPIDEAREN GEHIENENKO PUNTUAZIOA: 20
2.-	<p>Proiektua kudeatzeko plana: metodologia eta teknika instrumental egokiak; lan-plan bideragarria eta egin daitekeena. Arduen banaketa.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Erabili beharreko metodologiari dagokionez, helburuetariko bakoitzari lotutako atazak egoki deskribatzen dira. Askiak, osoak eta argiro berezituak dira. 2) Zereginek edo atazak jarduera zehatz eta bereziak izan behar dute, iraupen mugatuak (orientabide gisa, 50 ordutik beherakoak), eta, oro har, bide emango dute metodologia ikertzaile batekin edo birekin aplikatzeko, helburuetako bakoitza garatuz. 3) Atazen denbora-planifikazioa egiten da, kronograman baten bitartez. Sekuentzia eta iraupena direla-eta euren distribuzioa egokia da. 4) Aditzera ematen da ikertzaileetarako bakoitza sorturiko atazetarako izendatu izana. Argi ikusten da bakoitzaren eginkizuna eta betebeharrak zeintzuk diren. Ardurak zehaztu gabe daudela-eta zenbait ikertzaile ataza berberetara sistematikoki adskribatzea ez da onartzen. 5) Ikertzaileetarako bakoitzak badu gaitasunik esleitu zaitzkieon atazak egiteko. 6) Ikertzaileen dedikazioa egokia eta beharrezkoa da, hau da, ez gehiegizkoa ez txikiagia, eta ez da aurreikuspen-faltarik. 7) Proiektuaren mugariak zehaztu dira, helburuak edo helburu-multzoak partzialki erdietsi ondoren: mugariak erdietsiari lotutako tarteko txostenak egitea aurreikusi da. 8) Proiektua berraztertzea aurreikusten da (helburuak, metodoak...), betiere mugari-xedeak lortu ostean. 9) Emaizak eztabaidatu, bateratu eta koordinatzeko partaide guztiekin batzarrak egitea aurreikusten da. 10) Proiektua zuzentzeko funtzioak argiro deskribatzen dira, atazak, gastuak eta dedikatutako orduak ere zehazturik. 11) Eskaria egin duen zentro edo laborategiaz kanpoko zentroetan edo enpresetan egingo diren jarduerak edota datu- edo lagin-hartzeak guztiz integratuta daude kronograman eta kudeaketa-planean. Horren ondorioz, proiektuaren garapena eta/edo kudeaketa arriskuan izateko posibilitateak murriztu egin dira. 12) Kudeaketa-plana koherentea da, eta bide emango du helburua aurreikusitako epean jadeteko. 		
3.-	<p>Ikertzaileen kalitate zientifikoa, baita curriculum vitaeen adierazitako argitalpen zientifikoena eta patenteena ere.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Autonomia, Estatu edo Europa mailako ikerketa-sareetan parte hartzen du ikertzaile-taldeak. Sare horietako baten bati bikaintasuna aitortu zaio. 2) Ikertzaileek nazioarteko ospea duten zentroetan jaso dute beren trebakuntza osoa edo zati bat, hala estatuan nola atzerrian. 3) Taldea, ostera, egun lanean diharduen zentroan prestatu da. 4) Bere proiektuak eta argitalpenak direla eta, taldearen bilakaera positiboa ikusten da. 5) Taldea finantzatzeko proiektu behinenak honakoak dira: Estatu edo Europako lehia bidezko deialdietakoak, edo, bestela, tokikoak eta lehia txikikoak direnak. 6) Bere arlo zientifikoaren batezbestekoari dagokionez, zein da taldeak egiten dituen argitalpenen kalitatea. 7) Alorreko aldizkari garrantzitsuetan edo SCI n argitalpenak egin ditu. 8) Zein den garrantziko argitalpenen urteko tasa. 9) Ponenziak eta/edo konferentziak aurkezten ditu bere alorreko kongresu inportanteetan. Maiztasuna. 10) Ikertzaile-taldearekin batera ikertzaile nagusiak arrakastaz gidatu ditu beste proiektu batzuk, finantzaketa publikoen bitartez gidatu ere, eta nahikotasuna du maila zientifikoan eta teknikoan. 11) Taldeak aurkezten dituen argitalpenek badute interesa eta munta; horrez gain, proiektu berriei aurre egiteko nahiko gaitasun tekniko eta zientifiko agertzen dute. 12) Proiektuak egiten ari da edo egin ditu I+G Plan Nazionalean edota Europako 7. PMan. 13) Zer irizten diozu ikertzaile-taldearen kalitate zientifikoari, bere zientzia-alorrekoen batezbestekoa kontuan hartuta: goitik dago, batezbestekoaren parekoa da ala behetik dago? 14) Taldeak badu aski gaitasunik proiektua atarramentu onez garatzeko, eta emaitzen kalitate ona bermatzen du, baita xedea lortuko dela ere. 		10

IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK
4.- Ikergaiak ikertzaileek duten alde zurrerako esperientzia.	Irizpidearen gehieneko puntuazioa: 10
1) Proiektuaren helburu den galan lan egina da alde zurrerako esperientzia, kontratuen edo finantzaketa publikoaren bitartez.	
2) Ikertzaile-taldeak gaiari buruz egindako argitalpenak aurkeztu ditu, beste zentro batzuekin aritu da lanean edo zurrerako esperientzia erabiltzeko atera ditu.	
3) Aurkeztutako argirien arabera, esan daiteke ikertzaile-taldeak baduela proiektuari ekiteko nahikoa ezagutza.	
4) Proiektu-eskaerak gaiaren gaineko bibliografia eta zurrerakiez ezagutza ona agertzen du.	
5) Baliatu nahi diren metodologiak zurrerako lanetan erabili ditu ikertzaile-taldeak.	
6) Ikertzaile-taldea orekatua da, eta, lanaren arlo guztiak aski hartzeaz gain, metodologia zein teknika instrumental oro kontrolatzen du.	
7) Ikertzaile nagusiak azterlanaren gaiak eta metodologiak ezagutza ona agertzen du.	

IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK
5.- Zurrerako deialdietan finantzatutako azken 5 proiektuetan lortutako errendimendu-maila eta produktibitate zientifikoa.	Irizpidearen gehieneko puntuazioa: 15
1) Zurrerako deialdiaren azken 5 proiektuetan finantzatuta izan dituzten proiektuak, baita proiektu horietan erdietsitakoak ere: patenteak eta dagozkien argitalpenak.	
2) Zurrerapena ikusten da proiektuetan jorratutako gaien kalitateari eta zurrerari dagokienez, baita ateratako emaitzen kalitatean ere.	
3) Proiektuen inbertsio eta kostuak, eta ateratako emaitzak, eskaerarekin batera aurkezturiko dokumentazioan adieraziak, elkarren proportzioan daude.	
4) Ikertzaile-taldeak etekin ona atera dio zurrerako finantzaketari, emaitzen eta argitalpenen bidez.	
5) Taldeak baditu zurrerazko argitalpenak, SCI(n) edo antzekoetan.	
6) Zurrerako deialdiaren azken 5 proiektuetan finantzatuta izan dituzten proiektuak, baita proiektu horietan erdietsitakoak ere: patenteak eta dagozkien argitalpenak.	
7) Zurrerako deialdiaren azken 5 proiektuetan finantzatuta izan dituzten proiektuak, baita proiektu horietan erdietsitakoak ere: patenteak eta dagozkien argitalpenak.	
8) Artikuluaren argitalpenaren maiztasuna zurrerako deialdiaren azken 5 proiektuetan finantzatuta izan dituzten proiektuak, baita proiektu horietan erdietsitakoak ere: patenteak eta dagozkien argitalpenak.	
9) Zurrerako deialdiaren azken 5 proiektuetan finantzatuta izan dituzten proiektuak, baita proiektu horietan erdietsitakoak ere: patenteak eta dagozkien argitalpenak.	
10) Zurrerako deialdiaren azken 5 proiektuetan finantzatuta izan dituzten proiektuak, baita proiektu horietan erdietsitakoak ere: patenteak eta dagozkien argitalpenak.	
11) Zurrerako deialdiaren azken 5 proiektuetan finantzatuta izan dituzten proiektuak, baita proiektu horietan erdietsitakoak ere: patenteak eta dagozkien argitalpenak.	
12) Zurrerako deialdiaren azken 5 proiektuetan finantzatuta izan dituzten proiektuak, baita proiektu horietan erdietsitakoak ere: patenteak eta dagozkien argitalpenak.	

IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK
6.–	Proposatutako helburuetara egokitzea eta eskatutako finantza-baliabideak justifikatzea. Irizpidearen gehieneko puntuazioa: 5
1)	Laguntzailerik eskatu bada, lanen eta eginkizunen banaketaren arabera esleituko zaie dedikazioa.
2)	Laguntzailea eskatu bada, eman zaizkion zeregin edo atazak egokiak dira prestakuntza jasotzen ari den gazte batentzat, eta ez dira ikertzaile aditu batek egingo lituzkeen lanak.
3)	Proporzio egokia dago ikertzaileen dedikazioan.
4)	Atzei loturiko material suntsikorrenaren kostuen gaineko aurreikuspena egokia da. Aurreikuspen eta balorazio espezifikoak egin dira –estimazio orokorra baino gehiago–, proiektuak urte bakoitzean dituen beharrei buruz.
5)	Material inbentariagariaren kostuen gaineko aurreikuspena egokia da. Eskura daitekeen material inbentariagarria beharrezkoa da eta inguru hurbilean ez dago halakorik. Zure iritziz da: ezinbestekoa, beharrezkoa, egokia edo baztergarria. Halaber, zenbat elementu eskatzen diren, bat baino gehiago eskatuz gero.
6)	Material inbentariagarria eskatuz gero, merkataritza-etxeen proformako fakturak aurkezten dira, eta prezioak egokiak dira.
7)	Atzei loturiko bidaia-kostuen gaineko aurreikuspena egokia da. Proiektuaren helburuak betetzeko behar diren bidaiak dira.
8)	Foro, mintegi edo biltzarren batean parte hartzea aurreikusten da: zehazten eta non zehazten da. Egokiak dira, bai proiektuaren uneko egoera kontuan izanik datak egokiak direlako eta bai proiektuarentzako baliagarriak direlako ere.
9)	Bidaien balorazio ekonomikoa egokia da. Kostuak murriz daitezke; beharrezkoa da adierazi diren pertsona guztiak joatea.

IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK
7.–	Ikertzaile-taldea diziplina anitzekoa izatea. Irizpidearen gehieneko puntuazioa: 10
1)	Landuko den gaiak diziplina anitzeko ikuspegia eskatzen du.
2)	Metodologia desberdinak erabili behar dira proiektuen helburuak erdiesteko.
3)	Ikertzaile-taldea badu benetan diziplina anitzekoa den talderik, kideak elkarren osagarri izanik, eta erredundantziarik gabe.
4)	Taldekieen ekarpena simetrikoa da, xedea lortzeari dagokionez. Hala ez bada, denen ekarpenak badu abantaila argirik.
5)	Talde desberdinen ezagutzak modu orekatuan bateratu dira helburu komunetan, ala interakzio txikiko lanen batura baino ez da egin.
6)	Taldeen lanek elkarrekiko mendekotasuna dute eta, kasu honetan, egikaritze-sekuentzia zuzena da.
7)	Kudeaketa-plana modu jakin batean diseinatu da, era askotako diziplinek ekarritako eragozpenak ebatz ditzan. Neurri zuzentzaileak hartu dira.
8)	Zein da diziplina askotako kideak izateak dakarren ekarpenik berritzaile eta eragingarriena?
9)	Ikerketaren emaitzekin diziplina anitzeko argitalpenak egiteko asmoa dago.
10)	Ikertzaile-taldeen badute esperientziarik diziplina anitzeko ikerketa-lanetan.

IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK	Irizpidearen gehieneko puntuazioa: 5
8.-	Lortu nahi diren emaitzen garrantzia eta eragin ekonomikoa: proiektuak Espezializazio Adimenduneko Estrategian (RIS3) eta ZTBP Euskadi 2030 Planean zehaztutako helburuei egokitzea.	
1)	Proiektuan jasotako ikerketa-arloa bat dator espezializazio adimenduneko estrategietako batekin (RIS3). Industria adimenduna Energia garbiagoak Osasun pertsonalizatua	
2)	Proiektuan jasotako ikerketa-arloa aukera-lurraldeetako batekin bat dator. Elkadura osasungarria Euskadi sortzailea Hiri jasangarriak Ekoberrikuntza	

2024ko abenduaren 17a, asteartea

IV. ERANSKINA

ESKABIDE-INPRIMAKIA	ERREFERENTZI	
	A	
BARNE-KODEA		
OINARRIZKO IKERKETAKO EDO IKERKETA APLIKATUKO PROIEKTUAK		

A) ERAKUNDE ESKATZAILEA ETA PROIEKTUKO IKERTZAILE NAGUSIA

ERAKUNDE ESKATZAILEA			
IFK			
Sozietatearen izena			
Helbidea			PK
Telefonoa		Helbide elektronikoa	

IKERTZAILE NAGUSIA

Abizenak, izena							
NAN/AIZ		Sexua		<input type="checkbox"/>	Gizonezkoa	<input type="checkbox"/>	Emakumezkoa
Helbide elektronikoa		1. telefono-zenbakia		2. telefono-zenbakia			

B) PROIEKTUAREN DATU TEKNIKOAK

Izenburua			Iraupena (urteak)	
Unibazq arloa		Unibazq azpiarloa		
Sektore sozioekonomikoa				

Parte-hartze mota		
Ikertzaile nagusi koordinatzailearen izena:		
IFK	Sozietatearen izena	Koordinatzailea
		<input type="checkbox"/>
		<input type="checkbox"/>
		<input type="checkbox"/>

C) BESTE PROIEKTU BATZUEN ADIERAZPENA

(Proiektu bakoitzeko koadro bat erabili)

Izenburua:									
Egoera		Iraupena		Hasiera-data		Amaiera-data			
Erakunde finantzatzailea									
Deialdi mota				Kodea/Laguntza					
Kofinantzatua	<input type="checkbox"/>								
Kofinantzaketaren datuak									
Ikertzaile nagusia	NAN		Abizenak, izena						
Erakunde onuraduna	IFK		Sozietatearen izena						
Eskaera-data		Eskatutako zenbatekoa		Emate-data		Emandako zenbateko			
Gainjartze-maila (%)									
Ahalik eta modu argi eta laburrenean azaldu helburu komunak eta bien arteko diferentziak:									
<p>Alderdi ekonomikoak: zer eskatu zaion bati, eta zer eskatzen zaion besteari. Argi utzi proiektu bakoitzean eskatutako eta emandako kopuruak eta kontzeptuak, baita desberdintasunak ere, eta zertan aplikatuko den gastua bakoitza egikaritzean:</p>									
<p></p>									

2024ko abenduaren 17a, astearta

D) IKERTZAILE-TALDEA										
Gutxieneko ikertzaile-taldea										
Ikertzaile nagusia										
NA		1. abizena		2. abizena		Izena				
Titulu akademikoa			Titulazioa/Espezialitatea							
Laneko tel.		Tel. mugikorra			Helbide elektronikoa					
Zer erakunderi atxikita dagoen										
Zer erakundetan kontratatuta dagoen:										
<input type="checkbox"/>	IFK Erakunde eskatzailea *Egoitza EAEn duten unibertsitateen kasuan, adierazi finantzatu gabeko talde akreditatuaren erref. (3.1.1.b art.):						<input type="text"/>			
<input type="checkbox"/>	IFK Ikerbasque, erakunde eskatzaileari atxikia									
<input type="checkbox"/>	IFK UPV/EHU, erakunde eskatzaileari atxikia (BERC)									
Proiektua zuzentzen emandako ordu-kopurua				1. URTEA	2. URTEA	3. URTEA				
Kontratu mota										
<input type="checkbox"/>	Mugagabea	Hasiera-data								
<input type="checkbox"/>	Aldi baterakoa	Hasiera-data			Amaiera-data					
<input type="checkbox"/>	Doktoratu aurreko kontratua	Hasiera-data			Amaiera-data					
Kontratuaren araberako dedikazioa										
<input type="checkbox"/>	Osoa	Urteko ordu-kopurua								
<input type="checkbox"/>	Partziala	1. urteko ordu kopurua		2. urteko ordu kopurua		3. urteko ordu kopurua				

NAN		1. abizena		2. abizena		Izena				
Titulu akademikoa			Titulazioa/Espezialitatea							
Laneko tel.		Tel. mugikorra			Helbide elektronikoa					
Zer erakunderi atxikita dagoen										
Zer erakundetan kontratatuta dagoen										
<input type="checkbox"/>	IFK Erakunde eskatzailea *Egoitza EAEn duten unibertsitateen kasuan, adierazi finantzatu gabeko talde akreditatuaren erref. (3.1.1.b art.):						<input type="text"/>			
<input type="checkbox"/>	IFK Ikerbasque, erakunde eskatzaileari atxikia									
<input type="checkbox"/>	IFK UPV/EHU, erakunde eskatzaileari atxikia (BERC)									
Proiektuan emandako ordu-kopurua				1. URTEA	2. URTEA	3. URTEA				
Kontratu mota										
<input type="checkbox"/>	Mugagabea	Hasiera-data								
<input type="checkbox"/>	Aldi baterakoa	Hasiera-data			Amaiera-data					
<input type="checkbox"/>	Doktoratu aurreko kontratua	Hasiera-data			Amaiera-data					
Kontratuaren araberako dedikazioa										
<input type="checkbox"/>	Osoa	Urteko ordu-kopurua								
<input type="checkbox"/>	Partziala	1. urteko ordu kopurua		2. urteko ordu kopurua		3. urteko ordu kopurua				

2024ko abenduaren 17a, asteartea

NAN		1. abizena		2. abizena		Izena	
Titulu akademikoa		Titulazioa/Espezialitatea					
Laneko tel.		Tel. mugikorra		Helbide elektronikoa			
Zer erakunderi atxikita dagoen							
Zer erakundetan kontratatuta dagoen:							
<input type="checkbox"/>	IFK Erakunde eskatzailea *Egoitza EAEn duten unibertsitateen kasuan, adierazi finantzatu gabeko talde akreditatuaren erref. (3.1.1.b art.):						
<input type="checkbox"/>	IFK Ikerbasque, erakunde eskatzaileari atxikia						
<input type="checkbox"/>	IFK UPV/EHU, erakunde eskatzaileari atxikia (BERC)						
Proiektuari dedikatutako ordu kopurua				1. URTEA	2. URTEA	3. URTEA	
Kontratu mota							
<input type="checkbox"/>	Mugagabea	Hasiera-data					
<input type="checkbox"/>	Aldi baterakoa	Hasiera-data		Amaiera-data			
<input type="checkbox"/>	Doktoratu aurreko kontratua	Hasiera-data		Amaiera-data			
Kontratuaren araberako dedikazioa							
<input type="checkbox"/>	Osoa	Urteko ordu-kopurua					
<input type="checkbox"/>	Partziala	1. urteko ordu kopurua		2. urteko ordu kopurua		3. urteko ordu kopurua	

Gainerako ikertzaileak

(Behar beste koadro bete)

NAN		1. abizena		2. abizena		Izena	
Titulu akademikoa		Titulazioa/Espezialitatea					
Laneko tel.		Tel. mugikorra		Helbide elektronikoa			
Zer erakunderi atxikita dagoen							
Zer erakundetan kontratatuta dagoen:							
<input type="checkbox"/>	IFK Erakunde eskatzailea *Egoitza EAEn duten unibertsitateen kasuan, adierazi finantzatu gabeko talde akreditatuaren erref. (3.1.1.b art.):						
<input type="checkbox"/>	IFK Ikerbasque, erakunde eskatzaileari atxikia						
<input type="checkbox"/>	IFK UPV/EHU, erakunde eskatzaileari atxikia (BERC)						
Proiektuari dedikatutako ordu kopurua				1. URTEA	2. URTEA	3. URTEA	
Kontratu mota							
<input type="checkbox"/>	Mugagabea	Hasiera-data					
<input type="checkbox"/>	Aldi baterakoa	Hasiera-data		Amaiera-data			
<input type="checkbox"/>	Doktoratu aurreko kontratua	Hasiera-data		Amaiera-data			
Kontratuaren araberako dedikazioa							
<input type="checkbox"/>	Osoa	Urteko ordu-kopurua					
<input type="checkbox"/>	Partziala	1. urteko ordu kopurua		2. urteko ordu kopurua		3. urteko ordu kopurua	

2024ko abenduaren 17a, asteartea

E) DATU EKONOMIKOAK

Kontzeptua	1. urteko zenbateko	2. urteko zenbateko	3. urteko zenbateko
Laguntzaileak			
Material inbentariagarria			
Material suntsikorra			
Bidaia-gastuak			
Bestelako gastuak			
	Guztira		

LAGUNTZAILEAK

Atazak	1. urteko ordu-kopurua	2. urteko ordu-kopurua	3. urteko ordu-kopurua
	Orduak,		

Zenbatekoa, guztira

MATERIAL INBENTARIAGARRIA

Ekipamendua	Kostua	1. URTEA	Lehentasuna
	Guztira		

Ekipamendua	Kostua	2. URTEA	Lehentasuna
	Guztira		

Ekipamendua	Kostua	3. URTEA	Lehentasuna
	Guztira		

Guztira

2024ko abenduaren 17a, asteartea

MATERIAL SUNTSIKORRA

<i>Suntsikorra</i>	<i>Kostua</i>	1. URTE
	<i>Guztira</i>	

<i>Suntsikorra</i>	<i>Kostua</i>	2. URTE
	<i>Guztira</i>	

<i>Suntsikorra</i>	<i>Kostua</i>	3. URTE
	<i>Guztira</i>	

<i>Guztira</i>	
----------------	--

BIDAIA-GASTUAK

<i>Bidaia</i>	<i>Kostua</i>	1. URTE
	<i>Guztira</i>	

<i>Bidaia</i>	<i>Kostua</i>	2. URTE
	<i>Guztira</i>	

<i>Bidaia</i>	<i>Kostua</i>	3. URTE
	<i>Guztira</i>	

<i>Guztira</i>	
----------------	--

2024ko abenduaren 17a, asteartea

BESTELAKO GASTUAK	
<i>Gastua</i>	<i>Kostua</i> 1. URTE
	<i>Guztira</i>
<i>Gastua</i>	<i>Kostua</i> 2. URTE
	<i>Guztira</i>
<i>Gastua</i>	<i>Kostua</i> 3. URTE
	<i>Guztira</i>
	<i>Guztira</i>

F) ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Erakunde eskatzailea ordezkaten duenak, erantzukizuna bere gain hartuta, hau adierazten du ordezkaten duen erakundeari dagokionez:

1.– Dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabideren bat eskatu eta lortu duela xede bererako beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen batetik.

(Bai/Ez Adierazi dagokiona)

BAIETZ erantzunez gero, eskabidearen edo ematearen kopia erantsi behar da.

2.– Dirulaguntzak itzultzearekin lotutako betebeharrak ordaindu gabe ditu.

(Bai/Ez Adierazi dagokiona)

BAIETZ erantzunez gero, dagozkion egiaztagiria erantsi beharko dira eskabidearekin batera.

3.– Itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean dago, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den halako prozeduraren batean.

(Bai/Ez Adierazi dagokiona)

BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia erantsi behar da.

4.– Ez duela administrazio- edo zigor-zehapenik, laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dionik, eta ez duela laguntza horiek jasotzeko legezko debekurik.

(Bai/Ez Adierazi dagokiona)

BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar da.

5.– Sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapen bat ezarri zaio.

(Bai/Ez Adierazi dagokiona)

BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar da.

6.– Berdintasun-plan bat indarrean dauka, estatu-araudiaren arabera halakorik izatera behartuta badago.

(Bai/Ez/Ez dago behartuta Adierazi dagokiona)

7.– Estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezarri ditu, 50 langiletik gora izanez gero.

(Bai/Ez/Ez dago behartuta Adierazi dagokiona)

8.– Konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaera egin du, prozedura batean kaudimengabe deklaratu izan da, konkurtsoan deklaratu dago, esku-hartze judizialaren menpe dago edo Konkurtsoei buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta dago, konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe egonik.

(Bai/Ez Adierazi dagokiona)

BAIETZ erantzunez gero, dagozkion egiaztagirak erantsi beharko dira.

9.– Bide eman du administrazioarekin egindako kontraturen bat irmoki suntsiaraz dadin, kausaren batean errudun deklaratu egotearren.

(Bai/Ez Adierazi dagokiona)

BAIETZ erantzunez gero, ebazpena aurkeztu beharko da.

10.– Egoitza fiskala erregelamenduz zerga-paradisua gisa sailkatutako lurralde edo herrialderen batean dauka.

(Bai/Ez Adierazi dagokiona)

BAIETZ erantzunez gero, dagozkion egiaztagirak erantsi beharko dira.

11.– Konpromisoa hartzen du Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren Ikerketa Zuzendaritzari jakinarazteko dirulaguntza emateko eskatzen eta kontuan hartzen den eskakizunen bati eragiten dion egoera-aldaketa oro, baita beste administrazioaren edo erakunde publiko zein pribatu batek helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak jaso izanaren berri emateko ere.

12.– Deialdiaren aginduaren I. eranskinean zehaztutako printzipio bioetiko guztiak betetzen dituen ikerketa-proiektua aurkezten du.

13.– Onuradun izateko betekizun guztiak betetzen ditu.

14.– Eskaera honetako datuak egiazkoak dira, eta bertako zehaztugabetasunek, faltsutzeek edo omisioek sor ditzaketen erantzukizun penal, zibil eta administratiboak bere gain hartzen ditu.

15.– Konpromisoa hartzen du betekizun horiek dirulaguntza jasotzeko eskubidea duen bitartean betetzen jarraitzeko.

16.– Dirulaguntza jasotzeko eskubidea duela egiaztatzen duten agiriak ditu, eta Administrazioaren esku jarriko ditu eskatzen dizkionean.

Sinadura:

Ofiziotzko egiaztapena

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, prozedura hau bideratzen duen organoak ofiziotz egiaztatuko ditu, dagokion administrazioan, honako datu hauek:

1.- Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean izatea (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - GSDN)

2.- Zerga-betebeharrak egunean edukitzea (euskal foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia)

3.- Identitate-datuak, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren (DGP) identitate-datuak kontsultatzeko zerbitzuan.

Non eta interesduna horren aurka agertzen ez den modu arrazoituan. Aurka egiteko eskubidea erabiltzea

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa

Zure datu pertsonalak tratatu eta izen honetako tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira: Ikerketa sustatzeko laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Ikerketa Zuzendaritza, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila.

Helburua: Ikerketa finantzatzea eta bultzatzea.

Legitimazioa:

- *Interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari esleitutako ahal publikoak erabiliz egindako misioa betetzeko behar den tratamendua.*
- *38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.*
- *20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.*
- *3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.*

Hartzaileak:

- *Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.*
- *Ogasun eta Finantza Saila.*
- *Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.*

Eskubideak: Eskubidea duzu datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Web-orrialde honetan kontsulta dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/054300-capa2-eu.shtml>.

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>).

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTUTAKO AGIRIAK

<i>Dokumentua</i>	<i>Erantsia</i>